



PENTSIO-SISTEMA PRIBATUEN FISKALITATEA

2021eko abendua



Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. IDEIA NAGUSIAK	6
3. TRATAMENDU FISKALAREN DESKRIBAPENA	11
3.1 Alemania	12
3.2 Austria	15
3.3 Belgika	17
3.4 Danimarka	21
3.5 Espainia	23
3.6 Frantzia	25
3.7 Herbehereak	28
3.8 Erresuma Batua	30
3.9 Suitza	32
3.10 Suedia	34

The background features a complex geometric pattern of thin white lines forming a network, overlaid on a blue gradient that transitions from a lighter shade on the left to a darker shade on the right. A large, solid blue triangle is positioned on the right side of the image, pointing towards the top right corner. The text '1.' is located on the left side, within the lighter blue area.

1.

SARRERA

1. Sarrera

Pentsio-sistema pribatuei aplikatzen zaien tratamendu fiskala jorratzea eta erretirorako aurrezpen pribatua sustatzeari begirako pizgarri fiskalak ezagutzea da txosten honen helburua.

Fiskalak ez diren finantza-pizgarriez gain (hala nola, sorospen eta dirulaguntza publikoak eta estatuaren edo enplegatzailearen ekarpen paraleloak, pentsio-plan pribatuetara borondatezko ekarpenak egitea sustatzekoak) eta sistema pribatuak bultzatzeko mekanismoez gain (nork bere burua nahitaez afiliatzeko mekanismoak, besterik adierazi ezean enplegu-aurreikuspeneko sistema batera atxikitze mekanismoak, lan-harremana etetearen kalte-ordaina automatikoki pentsio osagarri bideratzen duten mekanismoak eta abar), zerga-abantailak daude sistema pribatuen bidezko erretirorako aurrezte erakargarriagoa egiteko. Hain zuzen ere, fiskalitate-pizgarriak dira dokumentu honen ardatza (zerga-salbuespenak, kenkariak, kreditu fiskalak...).

Lan honetan, honako herrialde hauetan aplikatzen den fiskalitatearen gakoak jasotzen dira, fitxa sintetikoetan:

- Alemania
- Austria
- Belgika
- Danimarka
- Espainia
- Frantzia
- Herbehereak
- Erresuma Batua
- Suedia
- Suitza

Kapitalizazioko pentsio-plan pribatuak kontuan hartu baditugu ere (mota guztiak: izan nahitaezkoak edo borondatezkoak, izan enpleguakoak edo pertsonalak, izan prestazio edo ekarpen definitukoak), plan motaren arabera bereizteko orduan, batez ere enplegu-sistemetan jarri dugu arreta.

Azterketa honetan ardazu da:

- Ekarpenen fiskalitatea
- Inbertsioen etekinen fiskalitatea
- Prestazioen edo pentsioagatiko diru-sarreraren fiskalitatea
- Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat eskaintzeko eta/edo horri ekarpena egiteko pizgarriarik dagoen.

1. Sarrera

Herrialde batzuetan pentsio-sistemei aplikatzen zaien fiskalitatearen testuingurua aldakorra dela ikusi dugu (aldi iragankorrak, erregulazio berriak...), sistemon iraunkortasunak edota pentsio nahikoak eta egokiak ziurtatu ahal izateak kezkatzen ditu eta.

Azken urteetan tratamendu fiskalean ikusi ditugun aldaketek bi norabide hauek hartu dituzte: 1) pizgarriak murriztu dira langile-kategoria batzuetan behintzat, eta 2) finantza-pizgarriak handitu dira.

Lehenengo herrialde blokean, lan honetan aztergai direnak aintzat hartuta, Austria eta Suedia nabarmendu behar ditugu. Lehenengoan, 2016tik, gastu bereziak (pentsioetarako ekarpenak hor sartzan dira) ez dira kengarriak pentsio-plan berrietarako, eta, bigarrenengan, 2016ko urtarilaren 1etik aurrera, autonomoek eta enplegu-planik gabeko langileek ezin dituzte kenkariak aplikatu ekarpenengatik pentsio-eskema, aseguru edo IPS erregimen (banakako aurrezki-kontuak) jakin batzuetan.

Bigarren blokean, hau da, finantza-pizgarriek gora egin duten herrialdeetan, Belgika aipa dezakegu, 2019an pentsio pertsonal profesionalen sistema berri bat sartu baitzuen enplegu-planik gabeko langileentzat. Eskema horrek ekarpenaren zenbatekoaren % 30eko kreditu fiskal ez-itzulgarri bat ematen du, inbertsioen etekinak salbuesitzat jotzen ditu, eta legezko erretiro-adinetik aurrera egindako erreskateak % 10ean zergapetzen ditu. Danimarkak, bestalde, zerga-salbuespen bat sartu zuen 2018an, pentsiorako aurrezteko pizgarriei eusteko. Hasiera batean, muga baterainoko pentsiorako aurrezkietan, aparteko % 22ko salbuespena lortu zen erretiroa hartu aurreko azken 15 urteetarako; halere, erretiroa hartzeko 15 urte baino gehiago falta zaizkien pentsio-aurreztaileentzat, salbuespen berezia % 8koa zen. Salbuespen gehigarriak % 32ra eta % 12ra igo dira 2020an, hurrenez hurren; beraz, zerga-salbuespena ekarpenen % 132koa edo % 112koa da, % 100ekoa izan beharrean. Espainian, 2021ean, kenkari fiskalaren muga 8.000 eurotik 10.000 eurora igo da enpresak eta langileak elkarrekin egindako ekarpenetarako. Alabaina, banakako planei egindako ekarpenak mugatu egin dira, eta ezin dira izan 2.000 euroak baino handiagoak. 2022an, fiskalitatea berriro aldatu da, eta mugak, hurrenez hurren, 8.500 eta 1.500 euroan finkatu dira. Adibide horiek argi eta garbi adierazten dute pentsioetarako aurrezteari aplikatzen zaion fiskalitatea ingurune aldakor batean dagoela.



2.

IDEIA NAGUSIAK

2. Ideia nagusiak

Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundean dauden herrialde guztiak ezaugarritzen ditu pizgarri fiskalak ezartzeak pentsio-sistema pribatuei egiten zaizkien ekarpenetan. Erretirorako aurreztearen tratamendu fiskal nagusia EET deiturikoa da herrialde guztietan: salbuespena ekarpenetan, salbuespena pentsio-funtsak eragindako etekinetan eta tributazioa prestazioetan. EET sistemak tresna finalista horien likideziaz eza sustatzen du.

Aztergai ditugun 10 herrialdeen artean, honako hauek aldentzen dira sistema nagusi horretatik: batetik, Austria eta Frantzia, TET sisteman baitaude, eta, bestetik, Danimarka eta Suedia, ETT sistema egiten baitute bere. Hala ere, herrialdeek tratamendu fiskala plan motaren arabera bereizten dutenean, enpleguakotan EET formula gailentzen dela egiaztatu dugu.

Txosten honetan aztertzen diren herrialdeen artean, Herbehereek, Espainiak, Suitzak eta Erresuma Batuak tratamendu fiskal berbera aplikatzen diete ekarpen eta pentsio-plan mota guztiei.

Alabaina, pentsio-plan pribatuei egiten zaizkien ekarpenen tratamendu fiskala aldatu egin daiteke (ikusi 2. taula), honako hauen arabera:

- Ekarpeneren jatorria (langilea ala enpresaburua).
- Nahitaezkoa edo borondatezkoa den.
- Ekarpena ordaintzen den plan mota (plan pertsonalak ala enpleguakotak/profesionalak).

Gainera, herrialde berberaren barruan, zerga-arintzea duten ekarpenen zenbatekoen mugak ezberdinak izan daitezke, ekarpen motaren arabera (horixe da, esaterako, Espainiaren kasua). Herrialde gehienetan, errentaren gainean zergarik ordaintzen ez dutenek ez dute inolako abantaila fiskalik jasotzen pentsio-plan pribatuetara egiten dituzten ekarpenengatik.

Aztertutako herrialdeetan, pentsio-planetara egiten diren ekarpenengatik muga jakin batzuetarainoko kenkariak aplikatzen dira (soldataren edo kotizazioaren ehuneko bateraino edo zenbateko jakin bateraino, edo bien konbinazio bat, edo adinaren arabera).

Herrialde batzuetan (hala nola, Belgikan edo Frantzian), enpresaburuen eta partikularren ekarpenek, plan beraren barruan, tratamendu ezberdina jasotzen dute errentaren gaineko zergan.

Tratamendu fiskala, halaber, plan motaren arabera alda daiteke (enplegu-plana, banakakoa). Aztertu ditugun herrialdeen artean, horixe da Alemaniaren, Austriaren, Danimarkaren, Frantziaren eta Suediaren kasua.

Herrialde batzuetan, ekarpenei ezartzen zaien zerga-tasa pertsonaren diru-sarreraren mailen arabera da. Horixe gertatzen da, adibidez, Herbehereetan. Han, tratamendu fiskala berbera da ekarpen eta pentsio-plan mota guztietarako, baina elkartutako pertsonaren edo partaidearen diru-sarreraren arabera aldatzen da.

2. Ideia nagusiak

Pentsio-funtsen inbertsioen etekinak, oro har, salbuetsita daude, eta, salbuetsita ez daudenean, pilaketa-aldian ordaintzen dute dagokien zerga. Dena dela, herrialde batzuek kobratzen direnean bakarrik kargatzen dituzte etekinak. Zerga-tasak ezberdinak izan daitezke inbertsioen iraupenaren, aktibo motaren edo planaren partaidearen diru-sarreraren arabera, eta ez diote inolako mugarik jartzen pila daitezkeen eskubideen zenbatekoari. Erresuma Batuan, esate baterako, ez dago jasotako dibidenduen gaineko ezein zerga-arintzerik; Danimarkan, berriz, zerga-tasa bakarra ezartzen zaie (% 15,3koa) inbertsioen etekinei. Suedian, inbertsioaren etekin egotziari ezartzen zaio % 15eko zerga-tasa, eta ez pentsio-planaren aktiboengatik sortutako inbertsioaren benetako etekinari. Etekin egotzia aurreko urteko mailegu publikoen batez besteko interes-tasari dagokio. Frantzian, pertsonak erretiroa hartzen duenean kargatzen dira etekinak, eta ez pilaketa-fasean.

Aztertutako herrialdeek ez dituzte pilatutako funtsak kargatzen, Erresuma Batuak izan ezik; bertan, muga bat ezartzen da, eta, muga horretatik aurrera, gaindikinak zergak ordaintzen ditu.

Prestazioek, oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan tributatzten dute, baina, herrialde batzuetan (adibidez, Belgikan, Danimarkan eta Frantzian), tratamendu fiskala hainbat aldagaiaren mende dago (ordaintzeko modua, ekarpenen jatorria, erretiroa hartzeko adina edo plan mota).

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren sistemaz gain, kotizazio sozialek pentsio-plan pribatuetara egindako ekarpenak eta pentsio pribatuen prestazioak kargatu ditzakete.

2. Ideia nagusiak

2.1 taula. Kapitalizazioko pentsio pribatuen tipologia, aztergai ditugun herrialdeetan

Herrialdea	Nahitaezkoa, enplegukoa	Nahitaezkoa, pertsonala	Borondatezkoa, enplegukoa	Borondatezkoa, pertsonala
ALEMANIA	☐	☒	☒	☒
AUSTRIA	☐	☐	☒	☒
BELGIKA	☐	☐	☒	☒
DANIMARKA	☒	☐	☐	☒
ESPAINIA	☐	☐	☒	☒
FRANTZIA	☒	☐	☒	☒
HERBEHEREAK	☒	☐	☐	☒
ERRESUMA BATUA	☐	☐	☒	☒
SUEDIA	☒	☒	☐	☒
SUITZA	☒	☐	☐	☒

Iturria: Guk geuk egina, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen informaziotik abiatuta: Financial Incentives for Funded private pensions Plans.

2. Ideia nagusiak

2.2 taula. Kapitalizazioko pensio pribatuen tratamendu fiskal orokorra, aztergai ditugun herrialdeetan

Herrialdea	Plan/ekarpen mota	Ekarpenaren iturria	Tratamendu fiskala*		
			Ekarpenak	Etekinak	Prestazioak
ALEMANIA	Pentsio-aseguru pribatua	Banakakoa	T	E	T/PE
	Beste plan batzuk	Guztiak	E	E	T
AUSTRIA	Enplegu-planak	Banakakoa	T	E	T/PE
	Enplegu-planak	Enplegatzailea	E	E	T
	Plan pertsonalak	Banakakoa	T	E	T/PE
	Erretirorako aurreikuspen-planak, estatuak sustatuak	Banakakoa	T	E	E
BELGIKA	Enplegu-planak	Enplegatzailea	E	E / % 9,25	% 10 / % 16,5
	VAPZ (autonomoak)	Banakakoa	E	E / % 9,25	T
	VAPW (enplegatuak)	Banakakoa	% 30eko kreditua	E / % 9,25	% 10 / % 33
	IPT (enpresadun autonomoak)	Banakakoa	E	E / % 9,25	% 10 / % 16,5
	POZ (enpresarik gabeko autonomoak)	Banakakoa	% 30eko kreditua	E / % 9,25	% 10
	Pentsiorako aurrezki-kontuak	Banakakoa	% 30 / % 25eko kreditua	E / % 9,25	Aktiboen % 8
DANIMARKA	Adinagatiko aurrezki-planak	Guztiak	T	% 15,3	E
	Beste plan batzuk	Guztiak	E	% 15,3	T
ESPAINIA	Guztiak	Guztiak	E	E	T
FRANTZIA	82. artikulua	Guztiak	T	T/PE	T/PE
	Enplegu-planak	Enplegatzailea	T/PE	E	T/PE
	PERCO planak	Banakakoa	T	T/PE	T/PE
	Beste plan batzuk	Banakakoa	T/PE	E	T/PE
HERBEHEREAK	Guztiak	Guztiak	E	E	T
ERRESUMA BATUA	Guztiak	Guztiak	E	E	T/PE
SUEDIA	Premium pentsioa	Banakakoa	E	E	T
	Beste plan batzuk	Guztiak	E	% 15	T
SUITZA	Guztiak	Guztiak	E	E	T

*: E-Salbuetsita; T-Tributatzen du; PE-Partzialki salbuetsita.

Iturria: Guk geuk egina, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen informaziotik abiatuta: Financial Incentives for Funded private pensions Plans.



3.

TRATAMENDU FISKALAREN DESKRIBAPENA

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.1 ALEMANIA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Borondatezkoa, profesionala edo enplegukoa
- Pentsio-funtsak (Pensionskassen eta Pensionsfonds) - Zuzeneko aseguruak (Direktversicherung) - Zuzeneko konpromisoak (Direktzusagen) - Laguntza-funtsak (Unterstützungskassen)
<i>2018ko urtarrilaren 1etik, gizarte-eragileek ekarpen definituko enplegu-planak hitzarmen kolektiboaren bidez sartzea erabaki dezakete. Bizi-aseguratzailerik eta pentsio-funtsek eskain ditzakete plan horiek. Eredu horrek, non enplegatuek enplegatzailerari eskatzen baitiote soldataren zati bat pentsio-plan profesional batera bideratzea, gizarte-segurantzarako kotizazioetan aurrezkiak aktiba ditzake, eta, kasu jakin batzuetan (diru-sarrera txikiko enplegatueta), zerga-arintzeak.</i>
Borondatezkoa, pertsonala
- Erretirorako pentsio-planak - Oinarritzko pentsio-planak (Rürup) - Pentsio-aseguru pribatua (Rentenversicherung)

Ekarpenen tratamendu fiskala
Pentsio-planak eta zuzeneko aseguruak: - Enpresaburuen eta langileen ekarpenak zergetatik salbuetsita daude, gizarte-segurantzari egiten zaion ekarpenaren %8ko gehieneko mugaraino (80.400 €, 2019an). Guztizko ekarpenek muga gainditzen badute, errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan kargatzen dira. Planera 2005a baino lehen afiliatutakoei dagokienez, kasu jakin batzuetan, 1.752 eurorainoko guztizko ekarpenak %20ko zerga-tasa finkoaren mende egon litezke (gehi elkartasun-zerga eta eliza-zerga); betiere, tasa langilearen errenta pertsonalaren gaineko zerga baino onuragarriagoa bada eta %8ko kenkari fiskalaren araua erabiltzen ez bada. Riester pentsio-planak: - Pentsio-sistema batean derrigortuta daudenek bakarrik (hau da, enplegatuek, funtzionarioek, langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituzten langabetuek eta baliaezintasun-pentsioen hartzaileek) izan ditzakete Riester pentsioak, prestazioak 2002an edo beranduago lege bidez murriztu ziren tokietan. Riester pentsio-planak eta planei dagozkien pizgarriak eskuragarri daude, oro har, ezkontideentzat eta izatezko bikoteentzat, biak Europar Batasunean bizi badira, bananduta ez badaude, gutxieneko ordainketa egiten badute eta Riester kontratu bat sinatzen badute. Planera afiliatuta daudenek estatuaren dirulaguntza bat jaso dezakete, eta dirulaguntza horien ekarpen garbiak ordaindu. Ekarpengordinak (dirulaguntza barne) errentaren gaineko zergatik ken daitezke, 2.100 eurora arte. Ikuspegi tekniko batetik begiratuta, geroko zerga-arintzearen aurrerakintzat jo daiteke gobernuaren dirulaguntza. Pizgarria jasotzeko, ofizialki ziurtatutako Riester pentsio-kontratu

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

batera harpidetu behar dira ekarpenak. Ziurtapen-irizpide garrantzitsuenak honako hauek dira: Pentsioa biziarteko errenta gisa ordaindu behar da, eta, kontratua 2011 baino beranduago sinatu bazen, ordainketa ez da 62 urte bete baino lehen egin behar. Bestela, diru-sarrerak murriztu daitezke 85 urte bete arte, eta biziarteko errenta jaso 85 urtetatik aurrera.

Oinarrizko pentsio-planak:

- Oinarrizko pentsioen ekarpenak errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan kargatuta daude zati batean. Ikuspegi fiskal batetik begiratzuz gero, oinarrizko pentsio-planak lehenengo zutabeko pentsioak bezala tratatzen dira (nahitaezko pentsio-plan estatala eta profesional jakin batzuentzako erretiro-plan kolektiboak). Fiskalitateari dagokionez, pentsio horiek trantsizio-aldian daude. Lehenengo zutabeko pentsioetara egiten diren ekarpenak (baita oinarrizko pentsioetara egiten direnak ere) partzialki zergapetuta daude, eta zati salbuetsia urtero handitzen da (2005ean, % 60tik aurrera).
- Oinarrizko pentsioetara egiten diren ekarpenek zerga-pizgarria eduki dezaten, ofizialki ziurtatuta dagoen oinarrizko pentsio-kontratu batera harpidetu behar dira. Ziurtapen-irizpide garrantzitsuenak honako hauek dira: Oinarrizko pentsio-plan baten prestazioak biziarteko errenta gisa ordaindu behar dira, eta, kontratua 2011 baino beranduago sinatu bazen, ordainketa ez da 62 urte bete baino lehen egin behar. Aurrezkiak ezin ditzake beste inork heredatu, besterenezinak izan behar dute, ezin daitezke berme gisa erabili, ezin daitezke saldu, eta ezin daitezke kapitalizatu.
- Pentsio-aseguru pribatua: Ekarpentetan ez da zerga-arintzerik aplikatzen.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- Inbertsioen ondoriozko diru-sarrerak ez daukate zergarik.
- Ez dago mugarik. Pilatutako funtsei ez zaie zergarik ezartzen.

Prestazioen tratamendu fiskala

- Oro har, pentsioen ondoriozko errentak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tasa marjinalera kargatzen dira.
- Zuzeneko konpromisoak: Zuzeneko konpromisoak trantsizio-aldian daude, pentsioen ondoriozko diru-sarreraren fiskalitateari dagokionez. Prestazioen zerga-salbuetspena pixkanaka murriztuko da, 3.000 eurora arteko pentsioengatik diru-sarreraren % 40tik (2005) % 0ra (2040). Prestazioen ordainketa 2019an hasi bazen, pentsioen ondoriozko diru-sarreraren % 17,6 zergetatik salbuetsita egongo dira, 1.320 eurora arte.
- Pentsio-planak, zuzeneko aseguruak eta Riester pentsioak: Zerga-kenkaria duten ekarpenen prestazioek, biziarteko errenta gisa ordaintzen badira edo gehienez ere % 30ean kapital gisa ordaintzen badira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan tributatzaren dute. Biziarteko errenta 31,15 eurotik beherakoa bada hilean, prestazioen guztizkoa kapital gisa ordaindu daiteke, eta pertsonen errentaren gaineko zergaren tasa marjinalera kargatzen da. Horrelakoetan, Riester pentsio-planaren kideek, oro har, ordainketa hurrengo urtearen hasieran kapital gisa jasotzeko eskubidea izaten dute, eta horrek ondorio positiboa izan lezake norbanakoaren zerga-tasa marjinalan. Riester planetan 85 urtetatik aurrerako urteko zerga dute diru-ateratze programatuek ere norbanakoaren zerga-tasa marjinalan tributatzaren dute. Zerga-kenkaririk gabeko ekarpenen mozkinak (adibidez, muga fiskalak gainditzen dituzten ekarpenak edo Riester dirulaguntzarako

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

eskubiderik ez dutenak) biziarteko errenta gisa ordaintzen badira, pentsioaren ehuneko bat soilik jartzen da zergaren mende, adinaren arabera.

Oinarrizko pentsioak:

- Erregimen iragankorraren ondorioz, pentsioengatiko diru-sarreraren tributazioa erretiroa hartzeko dataren arabera da. Prestazioak 2005ean edo lehenago ordaintzen hasi bazen, prestazioen % 50ek pentsiodunaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen tributatzan dute. Zati zergapegarriak ehuneko 2 egin du gora 2020ra bitartean. 2020tik 2040ra, zati zergapegarriak ehuneko 1 egingo du gora urtean, % 100era iritsi arte. Hortaz, 2040tik aurrera ateratzen diren pentsioak erabat kargatuta egongo dira.

Kotizazio sozialak

- Pentsio-planak (eta zuzeneko aseguruak): Ez langileak, ez enpresaburuak ez dituzte gizarte-segurantzarako ekarpenak ordaindu behar (pentsio estatala, langabezia-asegurua, gaixotasun-asegurua eta mendekotasun-asegurua), gizarte-segurantzarako kotizazioen % 4ko gehieneko mugaren barruko kotizazioen gainean. Zergetatik salbuetsita jarraitzen duten kotizazioen % 4 gehigarriaren gainean, gizarte-segurantzarako ekarpenak biltzen dira.
- Zuzeneko konpromisoak: Enpresaburuaren ekarpenak gizarte-segurantzarako ekarpenetatik salbuetsita daude, inolako mugarik gabe. Gauza bera gertatzen da langileen kotizazioekin (konpentsazio atzeratua), gizarte-segurantzarako kotizazioaren % 4ko gehieneko mugaren barruan.
- Riester pentsioa, oinarrizko pentsioa eta pentsio-aseguru pribatua: Kotizazio sozialak eman dituzten diru-sarreretatik ordaindu behar dira kotizazioak (Riester plan okupazionalak barne). Prestazioak ez daude gizarte-segurantzarako kotizazioen mende, erretiratuak pentsiodunen mediku-asegururako eskubidea badauka. Eskakizunak betetzen ez dituzten pentsiodunek epe luzerako osasun- eta zaintza-asegururako kotizazio guztiak ordaindu behar dituzte.

Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresaburuaren ikuspegitik, zuzeneko aseguru batera, pentsio-funts batera edo laguntza-funts batera egiten diren ordainketak jarduera-gastu gisa ken daitezke. Zuzeneko konpromisoetan, sortzapenak pasibotzat jo behar dira. Pentsioen sortzapenen ondorioz, onura fiskala murrizten da, eta, horrela, zerga-karga ere txikiagoa da. Gehienetan, horrek atzerapen fiskaleko efektua sortzen du, epe luzera eragiten duena.
- Negoziazio kolektiboaren eredu berriaren arabera, enpresaburu batek, urtean gutxienez 240 euroko ekarpena egiten badiu enpleguko pentsio-plan bati diru-sarrera baxuak dauzkan (hilean 2.200 € baino gutxiago irabazten dituen) langile baten izenean, soldata erregularren ordainketa ez ezik, ekarpenaren % 30eko zerga-arintzea ere jasotzen du, gehienez ere 480 eurokoa (hau da, zerga-arintzea 72 eta 144 euro artekoa da urtean). Zerga-arintzea soldataren gaineko zergaren bidez kudeatzen da, eta enpresaburuaren soldataren gaineko zergaren kuota murrizten du.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.2 AUSTRIA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Borondatezkoa, profesionala edo enplegukoa
• Pentsio-funtsak (Pensionskassen) • Zuzeneko konpromisoak (Direktzusagen) • Aseguru kolektibo profesionalak (Betriebliche Kollektivversicherung) • Zuzeneko aseguru (Direktversicherung) • Laguntza-funtsak (Unterstützungskassen)
Borondatezkoa, pertsonala
• Pentsio-asegurua (Pensionsversicherung) • Erretirorako aseguru, borondatezkoa eta pertsonala (Pensionsversicherung) - Erretirorako aseguru estatala (Prämienbegünstigte Zukunftsvorsorge)

Ekarpenen tratamendu fiskala
<i>Pentsio-plan profesionalak edo enpleguak:</i> • Langileen ekarpenak errentaren gaineko zergaren tasa marjinalera kargatzen dira. Ezin dezakete enpresaburuaren urteko ekarpenen batura gainditu (hala ere, langile batek 1.000 eurorainoko ekarpena egin dezake, nahiz eta enpresaburuak urtean 1.000 euro baino gutxiagoko ekarpena egin). • Ekarpen horiek gastu berezizat jotzen dira. Pertsona baten gastu berezien % 25 (pentsio pribatuari egiten zaizkion banakako ekarpenak gehi beste gastu berezi batzuk) muga bateraino dira kengarriak, familia tipologiaren eta diru-sarreraren mailaren arabera. 2016tik aurrera, gastu bereziak ez dira kengarriak pentsio-kontratu berrietarako. 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako kontratuetarako, berriz, kenkariak gehienez ere 5 urtez aplikatu zitezkeen. • Enplegatuaren ekarpenak ez dira langilearen diru-sarreratzat hartzen. • Enplegatuaren nahiz enplegatuaren ekarpenei % 2,5eko aseguru-zerga gehigarria aplikatzen zaie. <i>Pentsio-plan pertsonalak</i> • Pentsio-plan pertsonalei egiten zaizkien ekarpenak errentaren gaineko zergaren tasa marjinalera kargatzen dira. Ekarpen horiek gastu berezizat jotzen dira, eta % 25eko zerga-arintzea dute, muga bateraino. 2016tik aurrera, gastu bereziak ez dira kengarriak pentsio-kontratu berrietarako. 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako kontratuetarako, berriz, kenkariak gehienez ere 5 urtez aplikatu zitezkeen. • Estatuak erretirorako sustatzen dituen aurreikuspen-planetarako ez dago zerga-arintzerik. • Banakako ekarpenen gainean, % 4ko aseguru-zerga gehigarria aplikatzen da.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala
• Inbertsioen ondoriozko diru-sarrerak zergetatik salbuetsita daude kasu hauetarako: pentsio-funtsak, aseguru kolektibo okupazional/profesionalak, zuzeneko aseguruak, laguntza-funtsak eta pentsio pertsonalak. • Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.
Prestazioen tratamendu fiskala
Batez ere, plan motaren arabera da: • Pentsio-planak eta aseguru kolektibo okupazionalak: pentsioak laneko diru-sarrera gisa kargatzen dira errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan. Enplegatzailearen ekarpenengatik sortutako pentsioaren zatia % 100ean kargatuta dago. Langilearen ekarpenengatik sortutako pentsioaren zatiaren % 25 bakarrik kargatzen da. • Zuzeneko aseguru eta pentsioen aseguru pertsonala: pentsioak laneko diru-sarrera gisa kargatzen dira errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan, ordaindutako mozkinen guztizko balioak erretiroaren uneko pentsioaren kapitalaren balioa gainditzen badu. Horrek esan nahi du pentsioaren mozkinak zergetatik salbuetsita daudela une horretara arte. • Zuzeneko konpromisoak eta laguntza-funtsak: Pentsioak laneko diru-sarrera gisa kargatzen dira errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan. • Erretirorako aurreikuspen-planak, estatuak sustatuak: Pentsioak zergetatik salbuetsita daude, eskubideak enpleguko pentsio-plan edo pentsio-plan pertsonal batera transferitzen badira edo biziarteko errenta jasotzeko erabiltzen badira. Kapital gisa ordaintzen badira, estatuak emandako dirulaguntzen % 50 itzuli behar du norbanakoak, kapitalaren irabazien gaineko % 27,5eko zergarekin batera. • Lortutako errentak kapitalizatu egiten dira, eta ohiko diru-sarrera gisa kargatzen; betiere, ordainketak 12.600 euroko zenbatekoa gainditzen ez badu. Horrelakoetan, zerga-tasa arruntaren % 50 bakarrik ordaindu behar da.
Kotizazio sozialak
• Enplegatuen ekarpenei aplikatzen zaizkie, ez enpresaburuaren ekarpenei.
Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak
• Enpleguko pentsio-planetan (eta aseguru kolektiboetan), enpresaburuaren ekarpenak enpresa-gastu kengarriak dira fiskalki, soldataren % 10era arte; betiere, prestazioen guztizko objektiboak, gizarte-segurantzaren prestazioak barne hartuta, gaur egungo soldataren % 80 gainditzen ez badu.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.3 BELGIKA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Borondatezkoa, profesionala edo enplegukoa
- Enpresa-planak: plan kolektiboak edo banakakoak - Plan sektorialak
Borondatezkoa, pertsonala
- Autonomoentzako doako pentsio osagarria (VAPZ) - Enplegatuentzako doako pentsio osagarria (VAPW) - Enpresadun autonomoentzako banakako pentsio-konpromisoa (IPT) - Enpresarik gabeko autonomoentzako pentsio-konpromisoa (POZ) - Epe luzera aurrezteko banakako bizi-asegurua (hirugarren zutabea) - Pentsiorako aurrezki-kontuak (hirugarren zutabea)

Ekarpenen tratamendu fiskala
<i>Pentsio-plan profesionalak edo enplegukoak:</i> - Enpresaburuak enpleguko pentsio-plan bati egiten dizkion ekarpenak ez dira diru-sarrerara zergapegarriak langilearentzat. - Enplegatuek enpleguko pentsio-plan bati egiten dizkion ekarpenak oso urriak dira. Itzulgarria ez den zerga-arintze baterako eskubidea daukate, ekarpenaren zenbatekoaren % 30ekoa. - Enplegatuen eta enpresaburuaren ekarpenek zerga-arintzea izan dezakete, baldin eta erretirorako prestazio guztiek (legezko pentsioa barne hartuta) urteko azken soldata gordinaren % 80 gainditzen ez badute. - Enpresaburuak % 4,4ko zerga ordaindu behar du urtean, ordaindutako ekarpenen guztizkoaren gainean (enpresaburu gehi langilea). Zerga hori ez da ordaindu behar, pentsio-plana «soziala» bada (hau da, planak osagai solidarioak badauzka). <i>Doako pentsio osagarriak</i> - Norberaren konturako langileek doako hainbat pentsio-erregimen osagarri eskuratu ditzakete: autonomoek VAPZ planak ireki ditzake; besteren konturako langileek, berriz, VAPW planak ireki ditzakete. - VAPZ planetara egiten diren ekarpenak diru-sarrerara profesionaletatik ken daitezke. VAPZ planetara egiten diren ekarpenek ezin dezakete laneko diru-sarreraren % 8,17 gainditu; 2019an, 3.256,87 eurora arte (VAPZ plan «sozialetan», laneko diru-sarreraren % 9,40 da muga, 3.747,19 eurora arte). - VAPW planetara egiten diren ekarpenek ekarpenaren zenbatekoaren % 30eko zerga-arintze ez-itzulgarriko eskubidea dute. Bi zenbateko hauen artean, ezin dezakete handiena gainditu: 1.600 € 2019an edo bi urte lehenago jasotako soldata gordinaren % 3. Pertsona

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

fisikoa pentsio-plan profesional baten partaide bada, muga murriztu egiten da, plan horretan egindako azken bi urteetako ondare-hazkundeagatik (ekarpenak eta etekinak). Pertsonak % 4,4ko zerga ordaindu behar du urtean, egindako ekarpenen guztizkoaren gainean.

Autonomoentzako beste pentsio-plan pertsonal batzuk

- Autonomoentzat, beste bi pentsio-plan pertsonal mota daude. Enpresa daukaten autonomoek IPT plan bat ireki dezakete, eta enpresarik ez dutenek POZ plan bat.
- IPT planetara egiten diren ekarpenak errenta zergapegarritik ken daitezke, baldin eta erretiroko mozkin guztiek (legezko pentsioa barne hartuta) urteko azken soldata gordinaren % 80 gainditzen ez badute. Autonomoak % 4,4ko zerga ordaindu behar du urtean, egindako ekarpenen guztizkoaren gainean.
- POZ planetara egiten diren ekarpenek ekarpenaren zenbatekoaren % 30eko kreditu fiskal ez-itzulgarriako eskubidea sortzen dute. Autonomoak zerga-arintzea izan dezake, baldin eta erretiroako prestazio guztiek (legezko pentsioa barne hartuta) urteko azken soldata gordinaren % 80 gainditzen ez badute. Autonomoak % 4,4ko zerga ordaindu behar du urtean, ordaindutako kotizazio guztien gainean.

Hirugarren zutabeko pentsio-plan pertsonalak

- Hirugarren zutabeko pentsio-planetara banaka egiten diren ekarpenek ekarpenaren zenbatekoaren % 30eko zerga-arintze ez-itzulgarriako eskubidea dute.
- Pentsiorako aurrezki-kontuen kasuan, gehieneko ekarpena 980 eurokoa (% 30eko kreditu fiskala) edo 1.260 eurokoa (% 25eko kreditu fiskala) zen 2019an. Pentsiorako aurrezki-kontua 18 urtetik gorako baina 65 urtetik beherako pertsona fisiko batek ireki dezake, 10 urtez gutxienez.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- Inbertsioaren urteko etekina etekin bermatua baino handiagoa denean, pentsioen erakundeak urteko mozkinen partaidetza bat eman diezaioke norbanakoari, % 9,25eko zergari lotuta.
- Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.

Prestazioen tratamendu fiskala

Enpleguko pentsio-planak

- Enpleguko pentsio-planen tratamendu fiskala ordaintzeko moduaren eta ekarpenen jatorriaren arabera da. Ordainketa bat kapital gisa egiten bada, enplegatzailearen ekarpenei dagokien pilatu den kapitalaren zatia % 16,5era kargatzen da oro har (gehi udal-zerga). Pertsona erretiroa hartzeko legezko adinetik aurrera jubilatzen bada (65 urterekin, pixkaka 67 urteetara iristen ari bada ere) eta adin horretara arte aktibo egon bada, zerga-tasa % 10era murrizten da (gehi udal-zerga).
- Langilearen ekarpenei dagokien pilatu den kapitalaren zatia % 10era kargatzen da (gehi udal-zerga), hil edo erretiratu ondoren berreskuratzen bada prestazioa, goizenez 62 urterekin (2019tik aurrera, 63rekin) (ehuneko hori % 16,5ekoa da 1993a baino lehen egindako ekarpenei dagokien pilatutako kapitalerako).
- Biziarteko errentak legezko pentsioaren diru-sarreratara gaineratzen zaizkie. Pentsioaren guztizkoa, orduan, errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen kargatzen da, zerga-arintze handi bat esleitu ondoren. Biziarteko errentak, praktikan, oso urriak dira. Belgikan, diru-

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

ateratze programatuak ez daude baimenduta.

Doako pentsio osagarriak

- VAPZ planetatik ateratzean (62 edo 63 urtetatik aurrera, 2019tik aurrera), pilatutako kapitala errenta birtual bihurtzen da zerga-ondoreetarako. Errenta birtuala norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinallean kargatzen da, zerga-arintze handi bat esleitu ondoren. Errenta birtuala zehazteko, kapital metatuari bihurteta-tasa bat aplikatzen zaio (% 4ren eta % 4,5en artekoa), eta aldi jakin batean aitortu behar da (13 urtez, salbu eta gizabanakoa 65 urtetatik aurrera erretiratzeko bada; kasu horretan, aitortpenaren iraupena 10 urtekoa baino ez da).
- VAPW planen diru-ateratzeak % 10era zergapetuta daude (gehi udal-zerga), erretiroa hartzeko legezko adinetik aurrera egiten badira (65 urte, pixkaka 67 urtera iristen ari bada ere). Hala egin ezean, % 33an tributatzeko dute (gehi udal-zerga).

Autonomoentzako pentsio-plan pertsonal gehigarriak

- IPT planen erreskateak, oro har, % 16,5ean tributatzeko dute (gehi udal-zerga). Pertsona erretiroa hartzeko legezko adinetik aurrera erretiratzeko bada (65 urte, pixkaka 67 urtera iristen ari bada ere) eta adin horretara arte aktibo egon bada, zerga-tasa % 10era murrizten da (gehi udal-zerga).
- POZ planen erreskateak edo diru-ateratzeak % 10ean zergapetuta daude (gehi udal-zerga), hil edo erretiratu ondoren ateratzen badira, goizenez 62 urterekin (2019tik aurrera, 63rekin).

Hirugarren zutabeko pentsio-plan pertsonalak

- Hirugarren zutabeko pentsio-planak kapital gisa ordaintzen dira. Zenbateko orokor hori % 8ko tasan zergapetuta dago (% 10eko tasan, epe luzera aurrezteko banakako bizi-aseguruetan). Pentsio-plana 55 urte bete aurretik ireki bazen, 60 urte bete arte pilatutako kapitalaren gainean kalkulatzen da zerga. Pentsio-plana 55 urterekin edo beranduago ireki bazen, zerga pilatutako kapitalaren gainean kalkulatzen da, kontratuak 10 urte betetzen dituztenean. Pertsonak bi aukera dauzkate: zerga aurreratua ordaindu behar denean atera dezakete dirua, edo gehienez ere 65 urte betetzen dituztenean atera dezakete. Azken kasu horretan, partikularrek 60 urte bete ondoren ere ekarpenak egiten jarrai dezakete, pilatutako kapital gehigarriaren gainean zerga gehiago ordaindu beharrik gabe.

Kotizazio sozialak

- Enpresaburuek % 8,86ko tasan ordaindu behar dituzte ekarpen sozialak, enpleguko pentsio-plan batera egindako ekarpenen gainean; kotizazio sozialen ohiko tasa baino txikiagoa da hori.
- Autonomoen kasuan, kotizazio sozialek ez dituzte IPT planetara egindako ekarpenak zergapetzen. Aitzitik, POZ planetara egindako ekarpenak kobratu egiten dira. VAPZ planetara egindako kotizazioak kotizazio sozialtzat jotzen dira.
- Ekarpene sozial berezi bat dago, muga jakin bat gainditzen duten ekarpenen zatiaren gainean % 3koa (Wyninckx ekarpena deiturikoa). Wyninckx ekarpena ordaindu egin behar da, baldin eta lehenengo eta bigarren zutabeetako pentsioaren baturak funtzionarioen gehieneko pentsioa gainditzen badu. 2019an, urteko gehieneko zenbatekoa 78.453,60 eurokoa zen. Ekarpene plan guztiei aplikatzen zaie (hirugarren zutabekoei izan ezik), baina, batez ere, IPT planetarako da garrantzitsua.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- Enplegatuek enplegu-planetara eta VAPW planetara egiten dituzten ekarpenak eta hirugarren zutabeko planetara egiten diren banakako ekarpenak soldata bezala tratatzen dira, eta, beraz, ekarpen sozial berberen mende daude (% 13,07).
- Gutxieneko muga bat gainditzen duen pentsioa (lehenengo eta bigarren zutabeetakoak) duten pentsiodunek % 3,55eko kotizazio soziala ordaintzen dute gaixotasun- eta baliaezintasun-asegururako. Familia tipologiaren arabera, gutxieneko muga bat dago. Ekarpeneren ondorioz, hileko pentsioa ezin daiteke kopuru hori baino txikiagoa izan.
- Halaber, «elkartasunezko» ekarpen bat dago, familia-ezaugarrien arabera zenbateko jakin bat gainditzen duten pentsioen diru-sarrerari aplikatzen zaiena (lehenengo eta bigarren zutabeetan). Ekarpen hori pentsio gordinaren % 0ren eta % 2ren artekoa da.
- Hirugarren zutabeko zenbatekoak (kapital gisa ordaintzen direnak) ez daude kotizazio sozialen mende.

Enpresaburuak kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresaburuak enpleguko pentsio-plan bati egiten dizkion ekarpenak enpresa-gastu kengarriak izan daitezke, baldin eta erretirorako prestazio guztiek (legezko pentsioa barne hartuta) urteko azken soldata gordinaren % 80 gainditzen ez badute.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.4 DANIMARKA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Nahitaezkoa, enplegukoa
• Diru-sarrerei loturiko pentsio osagarrien erregimena (ATP)
Kuasinahitaezkoa, enplegukoa edo profesionala
• Hitzarmeneko pentsio-planak • Enpresako pentsio-planak
Borondatezkoa, pertsonala
• Borondatezko pentsio-plan pertsonalak
<i>Kuasinahitaezkoak diren plan okupazionalak eta borondatezko plan pertsonalak hiru plan mota izan ditzakete: adinagatiko aurrezpena (Aldersopsparing), diru-ateratze programatua (Ratepension/Ophørende livrente) edo biziarteko errenta (Livrente).</i>

Ekarpenen tratamendu fiskala
• Enplegatzailearen ekarpenak ez dira langilearen diru-sarrera zergapegarritzat hartzen. • Adinagatiko aurrezpenaren kasuan, banakako ekarpenak lan-merkatuaren gaineko zergaren (<i>Labour market tax</i>) eta errentaren gaineko zergaren mende daude. 2019an, ekarpenak 5.200 koroa daniarreko muga zuen. Erretiroa hartzeko adinera iritsi aurreko bost urteetan, urteko ekarpenaren muga 48.000 koroa daniarrera igotzen zen (zenbatekoa gutxika igotzen joango da, 2023an 51.100 koroa daniarrekoa izan arte). • Gainerako planetan, enplegatuen/norbanakoen ekarpenak errentaren gaineko zergatik kengarriak dira, baina lan-merkatuaren gaineko zergari lotuta daude oraindik: - ATP: ekarpenak zergetatik salbuetsita daude. - Diru-ateratze programatua: ekarpenak zergetatik salbuetsita daude, 55.900 koroa daniarrerraino. - Biziarteko errenta: ekarpenak zergetatik salbuetsita daude. • Pentsioetarako aurreztea sustatuko duten pizgarriei eusteko eta diru-sarrerekin nahiz etxebizitzarako laguntzekin zerikusia daukaten pentsio publikoekiko interakzio-arazoa saihesteko, 2018an zerga-salbuespen gehigarri bat sartu zen. Urtean pentsioetarako gehienez ere 71.500 koroa daniar aurrezten badira (enplegatzailearen eta enplegatuaaren ekarpenak, adinagatiko aurrezpenetan izan ezik), aparteko % 22ko salbuespena lortu zen erretiroa hartu aurreko azken 15 urteetarako. Erretiroa hartzeko 15 urte baino gehiago falta zaizkien pentsio-aurreztaileentzat, salbuespen berezia % 8koa da. Hau da, zerga-salbuespena ekarpenen % 122koa edo % 108koa da, % 100ekoa izan ordez. • Hamar urtez gutxienez biziarteko pentsio-plan batera zenbateko berbera sartzen duten autonomoi kenkari fiskala ezartzen zaie ordainketaren guztizkoan. 10 urtez baino gutxiagoz ordainduz gero, enpresaren urteko mozkinen % 30 artekoa izan daiteke kenkaria.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- Gutxienez 55 urte dauzkaten eta azkenengo 15 urteetan gutxienez 10 urtez negozio independente bat gidatu duten autonomoek jarduera uzteko pentsio-plan batean gordailutu ditzakete negozioa saltzearen ondoriozko mozkin zergapegarriak, 2.803.900 koroa daniarrera arte (2019an). Horrelakoetan, mozkinen gaineko zerga beranduago ordaintzen da: enpresa saltzen den urtetik pentsioa jasoko den urteetara arte.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- Etekinen kobrantza zergen mende dago, pentsio-plana edozein izanik ere. Diru-ateratzeak % 15,3ko tasa finko batean zergapetzen dira urtero, eta barruan sartzen dira dibidenduak, interesak eta aktiboen merkatu-balioaren aldakuntzak.
- Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.

Prestazioen tratamendu fiskala

- Diru-ateratze programatuen eta biziarteko errenten ATP planen kasuan, pentsioengatiko diru-sarrerak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren mende daude (baina ez lan-merkatuaren gaineko zergaren mende).
- Adinagatiko aurrezki-planen ondoriozko diru-sarrerak zergetatik salbuetsita daude, eta ez diete etxebizitzarako laguntzen eta pentsio publikoen eskubideei eragiten.
- Norbaitek, erretiroa hartzeko adinera iritsi aurretik, planen aktiboak diru-ateratze programatuen edo biziarteko errentaren bidez kobratzea erabakitzen badu, zenbatekoa % 60ko tasa finkoan zergapetuko da. Alabaina, enplegu-plan askok ez dute kobrantza aurreratzeko aukera eskaintzen.

Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresaburuek egindako ekarpenak, soldaten beste zati batzuk bezalaxe, gastu kengarriak dira, guztiz.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.5 ESPAINIA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Borondatezkoa, enplegukoa
• Enplegu-planak • Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak/mutualitateak • Aseguru kolektiboa • Barneko pentsio-funtsak • Enpresaburuaren gizarte-aurreikuspeneko planak
Borondatezkoa, pertsonala
• Plan elkartuak • Banakako planak • Aurreikuspen-plan aseguratuak

Ekarpenen tratamendu fiskala
• Enpresaren ekarpenak langilearen diru-sarreratzat hartzen dira. • 2021etik, banakako pentsio-planetara eta enpleguko pentsio-planetara urtean egin daitekeen banakako ekarpena 2.000 eurokoa da gehienez ere. Enpresak enplegu-planetara urtean egin dezakeen gehieneko ekarpena 8.000 eurokoa da zergadun bakoitzeko. Norbanakoek eta enpresek enpleguko pentsio-planetara egin ditzaketen ekarpenen baterako muga 10.000 eurokoa da zergadun eta urte bakoitzeko. • Zerga-oinarrian ezartzen den kenkari fiskalaren muga, sistema pertsonal batera egiten diren ekarpenei aplikatuta, honako hauetatik txikiena da: (i) lanaren eta ekonomia-jardueren etekin garbi agregatuen % 30 edo (ii) 2.000 €. Enplegu-planetan, kenkari fiskalaren muga 10.000 eurokoa da, zerga-oinarriaren % 30 gehienez. • Pertsona fisikoak beste 1.000 €-ko kenkaria izan dezake ezkontidearen pentsio-planera egindako ekarpenengatik.
Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala
• Inbertsioen etekinek ez daukate zergarik. • Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.
Prestazioen tratamendu fiskala
• Prestazioak laneko etekin gisa kargatzen zaizkio errentaren gaineko zergaren tasa marjinallean. Tratamendu fiskal berbera aplikatzen zaie oroharreko zenbatekoei eta biziarteko errentei. • 2007a baino lehen egindako ekarpenetarako, zerga-salbuespen bat dago. Horren arabera, oroharreko prezioan emandako prestazioak zergetatik salbuetsita daude, pilatutako prestazioen edo pilatutako kapitalaren benetako balioaren % 40a arte (2007a baino

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

lehenagoko prestazioetan eta ekarpenetan bakarrik). %40ko murriztapena ekitaldi bakarrean aplika daiteke, pertsonak sinatu dituen planen kopurua edozein izanik ere.

- Erregimen iragankor bat aplikatzen da, non 2007a baino lehen egindako ekarpenen ondoriozko oroharreko zenbatekoek lehen azaldu bezala tributatzen baitute, honako baldintza hauekin:
- 2010a baino lehen erretiratu zirenek zergarik gabeko kapital gisako kobrantzak jaso ditzakete, baldin eta 2018a baino lehen erreskatatzen badituzte;
- 2011ren eta 2014aren artean erretiratu zirenek zergarik gabeko kapital gisako kobrantzak jaso ditzakete, baldin eta erretiroa hartu eta 8 urteko gehieneko epean ateratzen badituzte;
- 2015etik aurrera erretiratu zirenek zergarik gabeko kapital gisako kobrantzak jaso ditzakete, baldin eta erretiroa hartu eta 2 urteko gehieneko epean ateratzen badituzte.

Kotizazio sozialak

- Gizarte-segurantzarako kotizazioak kalkulatzeko, enpresak pentsio-plan pribatuetara egin dituen ekarpenak baino ez dira kontuan hartzen. Enpresa batek langile baten alde pentsio-planetara egiten dituen ekarpenak soldata-oinarriaren igoeratzat hartzen dira, eta, hortaz, langileak nahiz enpresak gizarte-segurantzari ordaindu beharreko kotizazio-oinarria eta ekarpenak igotzen dira.
- Kotizazio sozialek ez dituzte pentsioen ondoriozko diru-sarrerak zergapetzen.

Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresak enpleguko pentsio-planetara egiten dituen ekarpenak zergetatik salbuetsita daude enpresaburuarentzat. Enpresaren ekarpenak gastu fiskal kengarria dira, primak langileen alde esleitzen badira.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.6 FRANTZIA

*Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura***Borondatezkoa, profesionala edo enplegukoa**

- Zuzendarientzako erretiro-planak (Kode Fiskal Orokorren 39. artikulua)
- Kapitalizazio profesionaleko planak (Kode Fiskal Orokorren 83. eta 82. artikulua)
- Enpresaren erretirorako aurrezki-planak (PERE)
- Erretirorako aurrezki-plan kolektiboak (PERCO)
- Funtzionarioentzako (PREFON) eta toki-administrazioen ordezkariarentzako (FONPEL, CAREL-MUDEL) pentsio-plan osagarriak

Borondatezkoa, pertsonala

- Autonomo eta nekazariarentzako erretiro-aseguruen kontratuak (Madelin)
- Erretirorako aurrezki-plan popularrak (PERP)
- Soldaduentzako erretiro-plan mutualista (RMC)

Ekarpenen tratamendu fiskala***Pertsona fisikoen gaineko zergaren erregimen fiskala***

- Enpresaburuak enpleguko enpresa-plan guztietara (82. artikulukoak kenduta) egiten dituen ekarpenak ez dira diru-sarrera zergapegarriak langilearentzat.
- Langileak pentsio-plan profesionaletara edo enplegukoetara (PERCO eta 82. artikulukoak kenduta) eta pentsio-plan pertsonaletara egiten dituen ekarpenak errentatik ken daitezke (edo onura zergapegarritik, Madelin kontratuarekin), plan motaren arabera aldatzen diren muga zehatz batzuetaraino. Mugak gainditzen dituzten ekarpenek norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen tributatu dute.
- Enplegatzaileak langileen izenean 82. artikuluko plan profesionaletara egiten dituen ekarpenak diru-sarrera zergapegarriak dira langilearentzat, eta ez dira kengarriak.
- Langileek PERCOra borondatez egiten dituzten ekarpenak ez dira kengarriak. Alabaina, PERCOra mozkinen partaidetza emanez egiten diren ekarpenak ez dira diru-sarrera zergapegarriak langilearentzat. Enpresaburuak PERCOra egiten duen ekarpenak ezin dezake gainditu gizarte-segurantzaren urteko gehieneko mugaren % 16, ezta langilearen ekarpenen hirukoitzaren ere (borondatezko ekarpenak eta mozkinetako partaidetza erakoak). Langileak PERCOn ordaintzen dituen kotizazioek (borondatezko kotizazioak eta mozkinetako partaidetza erakoak) ezin dezakete gainditu langilearen azken urteko diru-sarrera gordinen laurdena. Langileak PERCOra egiten dituen ekarpenen mugak barruan hartzen ditu enpresaren aurrezki-planera (PEE) edo enpresa arteko aurrezki-planera (PEI) egindako ekarpenak.

Zerga sozialak

- «Sozial» deituriko zergek enpresaburuak eta langileak enpleguko pentsio-planetara egindako ekarpenak (39. artikulukoak kenduta) eta norbanakoek pentsio-plan pertsonaletara egindako ekarpenak zergapetzen dituzte: ekarpen sozial orokorra (CSG) % 9,2ko tasan, eta gizarte-

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

zorra itzultzeko ekarpena (CRDS) % 0,5eko tasan. Zerga sozial horiek soldatan atxikitzen dira. CSGren zati bat errentaren gaineko zergatik ken daiteke (% 6,8). Zerga sozialak ez dira 39. artikuluko kotizazioetan aplikatzen.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- 39. artikulurako, 83. artikulurako, PERErako eta PERPerako, inbertsioen etekinen kobrantza errentaren gaineko zergatik eta zerga sozialetatik salbuetsita dago.
- PERCon eta 82. artikuluko planetan egindako inbertsioaren kobrantza edo diru-ateratzea ez da errenta zergapegarritzat jotzen pilaketa-fasean. Halere, kapital gisa kobratuz gero, kobrantza hori zerga sozialen mende dago, % 17,2ko tasan (PERCO), edo errentaren gaineko zergaren eta zerga sozialen mende (82. artikulua). CSGren zati bat errentaren gaineko zergatik ken daiteke (% 6,8).
- Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.

Prestazioen tratamendu fiskala

Biziarreko errentaren gisako kobrantza

- 39. artikulua, 83. artikulua, PEREk, PREFONEk, Madelinek eta PERPek ordaindutako biziarreko errentei pentsio publikoen zerga sozial berberak eta errentaren gaineko zerga ezartzen zaizkie. Pentsio horiek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen kargatzen dira, % 10 kendu ondoren. Kenkari hori ezin daiteke izan ez 383 eurotik beherakoa pentsiodun bakoitzeko, ez 3.752 eurotik gorakoa etxe bakoitzeko. Gizabanakoaren pentsioa 383 eurotik beherakoa bada, kenkari fiskala pentsioaren berdina da. Pentsio horiek, halaber, honako hauen mende daude: CSG (% 8,3), CRDS (% 0,5), ekarpen sanitarioa (% 1) eta autonomiarako elkartasun-ekarpena (CASA, % 0,3). CSGren zati bat errentaren gaineko zergatik ken daiteke (% 5,9).
- 39. artikulua ordaindutako biziarreko errentei zerga osagarri bat aplikatzen zaie. Zergen eskala biziarreko errenten hasiera-egunaren arabera da (2011ko martxoaren 1a baino lehenago edo beranduago hasi den).
- Pentsioaren ordainketaren lehenengo 1.000 euroak estaltzen dituen zerga osagarriaren zatia kengarria da.
- PERCOK eta 82. artikulua ordaindutako errentak, zati batean, norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen kargatuta daude, eta zerga sozialen mende (% 17,2), eskaera egin zeneko adinaren arabera (50 urte bete aurretik eskatzen bada, pentsioaren % 70 errentaren gaineko zergaren eta zerga sozialaren mende dago, eta, 70 bete ondoren eskatzen bada, % 30).

Kapital gisako kobrantza eta diru-ateratze programatuak

- Kapital gisako kobrantza eta diru-ateratze programatuak ez daude baimenduta 39. artikulurako, 83. artikulurako, PERErako eta PREFONerako. Ezta Madelin kontratueterako ere, pentsiodunak bizileku iraunkorra erosten badu salbu.
- 82. artikuluko erretiro-kontratuan 8 urteko antzintasuna egin ondoren oroharreko zenbatekoan ateratzen bada, ordainketa kapitalaren osagai baten eta kapitalaren etekinaren osagai baten artean zatitzen da. Kapitalaren etekinaren osagaia zergen mende egongo da, baldin eta 4.600 eurotik gorakoa bada (ezkongabeentzat), honela:

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- guztizko primak 150.000 eurotik beherakoak badira, % 7,5eko zerga bakarra (edo errentaren gaineko zerga, norbanakoaren zerga-tasa marjinallean) eta zerga sozialak;
- guztizko primak 150.000 eurotik gorakoak badira, % 30eko zerga bakarra (% 12,8 errentaren gaineko zergarako eta % 17,2 zerga sozialetarako) edo errentaren gaineko zerga, norbanakoaren zerga-tasa marjinallean, eta zerga sozialak.
- PERCOk ordaindutako oroharreko zenbatekoak kapitalaren osagai batean eta kapitalaren etekinaren osagai batean banatzen dira. Kapitalaren etekinaren osagaia baino ez dago % 17,2ko zerga sozialaren mende. Oroharreko zenbatekoa ez da errenta zergapegarritzat jotzen.
- Pentsiodunek PERPen % 20 arte kapital gisa atera dezakete. Horrelakoetan, pentsiodunek hainbat aukera fiskalen artean hauta dezakete.

Kotizazio sozialak

- 39. artikuluko planetara egiten diren ekarpenak ez daude kotizazio sozialen mende. Zehazki, enpresaburuak hiru ekarpen mota egin ditzake, nahieran. 39. artikularen kudeaketa aseguru-konpainia bati eskuordetzen ez bazaio, kotizazio sozialak aseguruaren primaren % 48an kargatzen dira. Kudeaketa eskuordetzen bada, ordea, tasa % 24 da. Enpresaburuek pentsioak hauta ditzakete, zerga-oinarri gisara, % 32ko tasarekin.
- Langileak eta enpresaburuak 83. artikulura eta PEREra egiten dituzten ekarpenak langilearen kotizazio sozialen mende daude. Mugen barruan, enpresaburuen ekarpenak % 20ko kuota sozial finko baten mende daude, enpresaburuen ohiko kotizazio sozialen mende egon beharrean. Ekarpenei muga honako hauen artean altuena da: urteko soldata gordinaren % 5 (urteko soldata gordinaren giza-te-segurantzaren urteko gehieneko muga halako 5 da, gehienez ere) edo giza-te-segurantzaren urteko gehieneko mugaren % 5. Enpresaburuak PERCOra egiten dituen ekarpenen ondorioz, muga murriztu egiten da. Mugaren gainetik egiten den edozein ekarpen enpresaren ohiko kotizazio sozialen mende dago.
- Enpresak 82. artikuluko planetara egiten dituen ekarpenak kotizazio sozialen mende daude.
- Langileek PERCOra egiten dituzten ekarpenak (mozkinetako partaidetzakoak kenduta) kotizazio sozialen mende daude. Ekarpenei % 20ko kuota sozial finko baten mende daude, enpresaren ohiko kotizazio sozialen mende egon beharrean, zeinak % 16ra murrizten diren bi baldintzatan.
- PERPera eta Madelin kontratuetara egiten diren ekarpenak kotizazio sozialen mende daude.
- Ekarpenei sozialak ez dira pentsioen ondoriozko diru-sarreretan aplikatzen.

Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresaburuek enpleguko pentsio-plan pribatuara egiten dituzten ekarpenak (39. artikulua, 83. artikulua, PERE eta PERCO) sozietateen gaineko zergatik ken daitezke. Kontribuzio sozialei dagokienez, lehen azaldutako tratamendu soziala pizgarria da enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sor dezaten edo horrelako plan bati ekarpenak egin diezazkieten.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.7 HERBEHEREAK

Kapitalizazioko pentsio-sistema pribatuaren egitura

Kuasinahitaezkoa, profesionala edo enplegukoa
- Sektorea edo industria - pentsio-plan zabalak - Enpresako pentsio-planak - Profesionalentzako pentsio-planak - Plan profesional aseguruak
Borondatezkoa, pertsonala
Zahartzarorako plan pertsonalak

Ekarpenen tratamendu fiskala
- EET sistema (salbuespena ekarpenetan, albuespena etekinetan eta tributazioa prestazioetan) ezartzeko gehieneko errenta 107.593 euroan finkatu zen 2019an. Ekarpengehigarriak egin nahi izanez gero, borondatezko pentsio-plan bat ireki behar da, eta plan horretara egiten diren ekarpenak ez dira fiskalki kengarriak; bestetik, inbertsioen etekinak eta kapital-irabaziak zergetatik salbuetsita daude, borondatezko pentsio-plan horren prestazioak bezalaxe (TEE sistema). - Bi mailatako sistema hori 2015eko urtarrilaren 1ean sartu zen. Gehieneko diru-sarrerak urtero indexatzen zaizkio gutxieneko soldadari. EET sistema (salbuespena ekarpenetan, albuespena etekinetan eta tributazioa prestazioetan) - Enpleguko pentsio-plan bati egiten zaizkion ekarpenak ez dira diru-sarrera zergapegarriak langilearentzat. Bigarren zutabeko kotizazioak pentsioen hitzarmen kolektiboetan finkatzen dira, eta enpresaburuen eta langileen artean banatzen. Enpresaburuek zati handiagoa ordaindu ohi dute (gutxi gorabehera, bi heren). - Enplegu-plan bati egiten zaizkion ekarpenei dagokienez, berriz, zerga-arintzea mugatua da EET sisteman. Prestazio definituko planetan, urtebetean eman daitekeen pentsioa mugatua da (prestazioa zehaztuta dago). Ekarpengehigarriak definituko planetan, ekarpena mugatua da. - Enpleguko pentsio-planak: Pentsioa edozein lan-urtean esleitu daiteke (lan-urte bati dagokion eskubidea), eta, lehenengo zutaberako (estatuen pentsio orokorra), ezin dezake gaititu ibilbide profesionalaren batez besteko soldataren % 1,875 ken atalase bat, erretiroa hartzeko adina 68 urtekoa bada. 40 urtez lan egin ondoren, batez besteko soldataren % 75eko pentsioa sor dezake horrek. Amaierako soldadari dagokionez, edozein lan-urtean esleitu daitekeen pentsioa ezin dezake % 1,657 gaititu. - Ekarpen definituko plan profesionalak: arau fiskalek zehazten dituzte guztizko gehieneko ekarpenak. Gehieneko ekarpen horiek ezberdinak dira partaidearen adinaren eta haren egoera pertsonalaren arabera. Kotizazio horiek soldataren % 3,2ren eta % 4,6ren artean dabilta (15 eta 19 urte bitarteko langileentzat, biak barne), eta % 22,3tik % 27,3ra igo daitezke (65 eta 67 urte bitarteko langileentzat, biak barne); zenbateko horri, lehenengo zutabeko atalasea kendu behar zaio gero.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- Zahartzarorako aurreikuspen pertsonal pribaturako kotizazioak muga bateraino dira kengarriak. Kotizazioak urteko diru-sarreraren % 13,3ra mugatuta daude (gehieneko muga 107.593 eurokoa da), eta lehenengo zutabeko (estatuaren pentsio orokorra) atalasea kendu behar zaio horri, pentsio-plan profesionalean edo enpleguakoan pilatutako pentsio-eskubideak kontuan hartuta (erretiro aurreratuaren ondoriozko pilaketa eta zerga-arintzea saihesteko).

TEE sistema (tributazioa ekarpenetan, salbuespena etekinetan eta salbuespena prestazioetan)

- TEE sistemaren esparruan egiten diren ekarpenak norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalean kargatzen dira.
- Kapitalizazioko enpleguko pentsio-planetara egiten diren ekarpenak ere mugatuta daude. Gehieneko ekarpenak adinaren arabera aldatzen dira, eta % 2,2tik (15-19 urte-kategoria) % 13,2rainokoak (65-67 urte-kategoria) izan daitezke.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- Inbertsioen etekinak ez dira kargatzen.
- Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.

Prestazioen tratamendu fiskala

- EET sisteman, pentsio-plan pertsonalen edo enpleguko pentsio-planen ondoriozko diru-sarrerek norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalean tributatzeko dute.
- TEE sisteman, berriz, pentsio-plan pertsonalen edo enpleguko pentsio-planen ondoriozko diru-sarrerak ez daude zergen mende.
- Oro har, ordainketa ezin da kapital gisa egin, errentaren ordainketa oso txikia ez bada (484,09 euro 2019an, enplegu-planetarako), eta ordainketa horiek diru-sarrera gisa tributatzeko dute. Pentsio-plan pertsonaletan, kapitalaren guztizko ordainketak ezin ditzake 4.404 euroak gainditu (2019an, inflazioari indexatuta).

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.8 ERRESUMA BATUA

Kapitalizazioko pensio pribatuen sistemaren egitura

Nahitaezkoa, profesionala edo enplegukoa
Pensio profesionalen erregimenak (afiliazio automatikoa)
Borondatezkoa, pertsonala
- Pensio-plan pertsonalak (banakakoak edo kolektiboak) - Pensio-plan pertsonalak (banakakoak edo kolektiboak)
<i>Lantokiko pensioek barruan hartzen dituzte pensio-plan profesionalak, pensio pertsonal kolektiboak eta interesdunen pensio kolektiboak (Stakeholder).</i>

Ekarpenen tratamendu fiskala
- Pensio-plan erregistratueta egiten diren ekarpenek muga baterainoko zerga-arintzea jasotzen dute urtean. Pertsona fisikoek errentaren gaineko zergan tasa marjinalen ordaintzen dute ekitaldi fiskal horretan urteko mugaren gainetik duten edozein pensioetarako aurrezki. - Enpleguko pensio-planak: oro har, enpresak, zergak deskontatu baino lehen, norbanakoaren nominan kenkariak aplikatzen ditu pensiorako ekarpenengatik. Pertsonak geratzen den horren gainean ordaintzen du errentaren gaineko zerga. Zerga-arintze sistema horri «ordainketa garbirako akordio» esaten zaio. - Lantokiko beste pensio batzuk: enpresak, zergak kendu ondoren, langilearen ordainsaritik kentzen ditu pensiorako kotizazioak. Pensioaren hornitzaileak zergak % 20ko oinarritzko tasan itzultzea eskatzen dio gobernuari, eta zergak pensioaren kontuan itzultzen dira. Tasa handiago batean (% 40) edo tasa gehigarri batean (% 45) tributatzeko duten errenta-aitorpenaren bidez eska dezakete aldea. Zerga gehigarriaren itzulketa ez da pensioaren kontuan ordaintzen. Zerga-arintzearen sistema horri «jatorriko zerga-arintzea» esaten zaio. - Pensio pertsonalak: jatorriko zerga-arintzearen metodoa aplikatzen da. Pensiora edozein ekarpen egin aurretik, pertsonak errentaren gaineko zerga ordaintzen dute, baina pensioaren hornitzaileak zergak oinarritzko tasan itzultzea eskatzen dio gobernuari (zerga-itzulketa pensioaren kontuan ordaintzen dira). Tasa handiago batean edo tasa gehigarri batean tributatzeko duten errenta-aitorpenaren bidez eska dezakete aldea (aparteko zergen itzulketa ez da pensioaren kontuan ordaintzen). - Pensiorako ekarpenen barruan, norbanakoak ekitaldi fiskal batean egin dezakeen gehieneko zerga-arintzea 3.600 liberakoa eta norbanakoak Erresuma Batuan dituen diru-sarrera zergapegarrien % 100ekoa da, zein den handiena. Pertsona batek Erresuma Batuan dituen diru-sarrera zergapegarriak 3.600 liberatik beherakoak badira, ekarpenetan zerga-arintzea egin ahalko du, baldin eta pensio-planak jatorriko zerga-arintzearen mekanismoa erabiltzen badu.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- Pertsona batek urtebetean 40.000 libera baino gehiagoko ekarpena (urteko diru-kopurua, 2018-2019 urte fiskalerako) egiten badio pentsioari (pentsioa bazkidearena edo partaidearena nahiz enpresaburuarena izan daiteke), soberakina karga fiskal baten mende egongo da (urteko diru-kopuruaren karga). Bada, hain zuzen ere, karga horrexek urterako esleitutako zerga-arintzea mugatzen du. Pertsona fisikoek aurreko hiru urteetan erabili ez duten urteko zerga-arintzea erabil dezakete.
- 150.000 libera baino gehiagoko diru-sarrerak dauzkaten (pentsiorako edozein ekarpenen balioa barne hartuta) eta 110.000 libera baino gehiagoko diru-sarrerak dauzkaten (pentsiorako ekarpenak kenduta) pertsona fisikoek mugatuta daukate pentsioen zerga-arintzea, urteko zerga-arintzearen zenbatekoaren murriztapena dela-eta.
- Afiliatuak 75 urte bete ondoren ordain ditzake ekarpenak, baina erretirorako ekarpen horiek ez dira zerga-aringarriak, eta, beraz, ez daukate zerga-arintzerako eskubiderik.

Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala

- Pentsio-planen inbertsio gehienek diru-sarrerak eta mozkinak ez daude zergen mende. Alabaina, pentsio-planek ez daukate dibidenduen ondoriozko zerga-arintzerik, eta inbertsio jakin batzuetatik (adibidez, bizitegi-higiezinetatik) datozen diru-sarrerak zergen mende daude, betiere plana inbertsioen bidez erregulatutako pentsio-plana bada (hau da, pentsio-planeko kide batek inbertsioak gidatzen baditu).
- Pilatutako funtsak: pentsio-plan pribatu batean pila daitekeen eta pertsona batek zerga-arintzea lor dezakeen guztizko zenbatekoa mugatuta dago. Muga hori, gaur-gaurkoz, 1,055 miloi libera esterlinakoa da (zenbateko hori kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratzen da urtero). Biziarteko prestazioa baino balio handiagoko pentsioetarako aurrezkiak metatzen dituztenek karga fiskal bat ordainduko dute gaindikinagatik.
- Biziarteko prestazioaren muga gainditzeko duen edozein soberakinen gainean ordaintzen da tasa, soberakina ordaintzeko moduaren arabera. Kapital gisa ordaintzen bada, tasa % 55ekoa da. Errenta gisa ordaintzen bada, berriz, tasa % 25ekoa da (pentsioen diru-sarrerak norbanakoaren errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan kargatzen dira).

Prestazioen tratamendu fiskala

- Biziarteko errentak, diru-ateratze programatuak eta erreskate orokorrak diru-sarrera gisa kargatzen dira, errentaren gaineko zergaren tasa marjinalan. Lantokiko pentsio-planen eta pentsio-plan pertsonalen diru-sarrerak pentsioen edo biziarteko errentaren hornitzaileak ordaintzen dizkio norbanakoari, zergak kenduta, PAYE sistemaren bidez (Pay As You Earn).
- Pertsona batek zergarik gabeko kapitala eduki dezake, pentsio-funtsaren edo -funtsen guztizko balioaren % 25era arte, pentsio edo biziarteko errenta bat kontratatzen duenean. Prestazio definituko erregimenek, zergarik gabeko kapitala kalkulatzeari begira, funts bat daukate, urteko pentsioa halako 20 dena. Ekarpen definituko planek kristalizatu gabeko funts-pentsio baten kapitala ordaintzen dutenean, kapitalaren balioaren % 75 norbanakoaren zerga-tasa marjinalaren gaineko zergen mende dago.
- Erretiroa hartzeko gutxienezko adin normala baino lehen (gaur egun, 55 urte) eskuratu daitekeen pentsioetarako aurrezkiak % 55eko tasaren mende dago (baimendu gabeko ordainketen tasa eta baimendu gabeko ordainketengatik errekarria).

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.9 SUITZA

Kapitalizazioko pentsio pribatuen sistemaren egitura

Nahitaezkoa, profesionala
Pentsioen erakundeak (2. zutabea)
Borondatezkoa, pertsonala
Erretirorako banakako aurrezki-planak (3. zutabea)

Ekarpenen tratamendu fiskala
- Enplegatuek eta enpresaburuek enpleguko pentsio-planen egiten dizkieten ekarpenetan zerga-arintzeak izan ditzakete. - Erretirorako banakako aurrezki-planetara egiten diren ekarpenek kenkari fiskalak eragiten dituzte, muga bateraino. Norbanakoak pentsio-plan profesional bat badauka, plan pertsonaletarako ekarpen kengarriek 6.768 franko suitzarreko muga daukate. Pertsonak pentsio-plan profesionalik edo enplegukorik ez badauka, zerga-arintzea izan dezaketen ekarpenek urteko diru-sarreraren % 20ko muga daukate. Horrelakoetan, zerga-arintzeak ezin ditzake 33.840 franko suitzar gainditu. Ezin da soberako ekarpenik egin.
Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala
- Inbertsioen etekinek ez daukate zergarik. - Pilatutako funtsetarako ez dago mugarik, eta ez da zergarik ezartzen.
Prestazioen tratamendu fiskala
- Tratamendu fiskal berbera ezartzen zaie pentsio-plan profesionalak eta pertsonalek erretirorako ordaintzen dituzten prestazioei. Biziarteko errentak eta diru-ateratze programatuak errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen kargatzen dira. - Gobernu federalak eta eskualdeek (kantonamenduek) lehentasunezko tasetan kargatzen dituzte oroharreko zenbatekoak, beste diru-sarrera batzuetatik bereizita: - Gobernu federalak kapital gisa kargatzen du kobrantza, kapital erako diru-sarrera gisa. Zerga hori progresiboa da, eta kapitala bere aldetik diru-sarrera gisa kargatuko balitz sortuko litzatekeen errentaren gaineko zergaren bosten bat da. - Kapital gisa egindako kobrantzaren tratamendu fiskala kantonamendutik kantonamendura aldatzen da.
Kotizazio sozialak
- Enpleguko pentsio-planetarako kotizazioak soldata gordinarekin ordaintzen diren kotizazio sozialen zati dira. - Erretirorako banakako aurrezki-planetara egiten diren ekarpenak errenta erabilgarriarekin ordaintzen dira. Diru-sarrera horiek kotizazio sozialen mende daude dagoeneko.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

- Kotizazio sozialek ez dituzte pentsioen ondoriozko diru-sarrerak zergapetzen.

Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak

- Enpresek 2. zutabera egiten dituzten ekarpenak kengarriak dira sozietateen gaineko zergan.

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

3.10 SUECIA

Kapitalizazioko pensio-sistema pribatuaren egitura

Nahitaezkoa, pertsonala
Premium pensio-sistema (PPM)
Kuasinahitaezkoa, profesionala
- Ongintzazko sozietateak - Pentsioen fundazioak - Bizitza-aseguruaren konpainiak - Funtsen erreserba
Borondatezkoa, pertsonala
- Pentsioetarako banakako aurrezkia (IPS) - Banakako pensio-asegurua

Ekarpenen tratamendu fiskala
- Premium pensio-sistemara (PPM sistemara) egiten diren ekarpenak sistemara lotutako pertsonaren, enpresaburuaren (autonomoak barne hartuta) eta estatuaren artean banatzen dira. Pertsonak pentsiorako ordaintzen duen ekarpena («ekarpen nazional» izeneko) % 7koa da, eta gehienez ere 8,07ko oinarria duten diru-sarreraren gainean ordaintzen da. Pentsiorako ekarpen nazionala aurretiko zergarekin batera ordaintzen da. Hala ere, ordaindutako jarduera batean diharduten pertsonen amaierako zerga ordaindutako pentsiorako ekarpen nazionalari dagokion zenbatekoan murrizten da. - Enplegu-planetarako ekarpenak enpresaburuek bakarrik finantzatzen dituzte. Ekarpene horiek ez dira errenta zergapegarritzat jotzen langilearentzat; betiere, Errentaren gaineko Zergari buruzko Legean aurreikusten diren formatako batean bermatzen badira. 2016ko urtarilaren 1etik aurrera, autonomoei eta enpleguan pensio-eskubiderik ez duten besteren konturako langileei bakarrik aplikatu ahal zaizkie kenkariak pensio-aseguruaren kontraturako edo IPS (pentsioen banakako aurrezkia) planetarako ekarpenengatik. Pertsona horientzat, banakako kotizazioen muga diru-sarrerara onargarrien % 35ekoa da, edo, gehienez ere, urtean oinarritzko 10 zenbatekokoa (2019an, 465.000 koroa suitzar). Zerga-arintzerako eskubidea izateko, prestazioak ezin daitezke 55 urte bete aurretik atera, eta ordainketek gutxienez 5 urtez iraun behar dute errenta gisa.
Etekinen eta pilatutako funtsen tratamendu fiskala
- PPM erregimenetan (Premium pensio-sistema), inbertsioaren etekinak ez dira kargatzen. - Pensio-erregimen profesional edo enpleguakotan eta pertsonaletan, etekinak % 15eko tasa finkoan kargatzen dira, inbertsioan egotzitako etekin baten gainean. Etekin egotzia aurreko urteko mailegu publikoen batez besteko interes-tasari dagokio, baina ezin daiteke negatiboa

3. Tratamendu fiskalaren deskribapena

izan. Biziarteko errenten primak fiskalki kengarriak ez badira, ezberdin kargatzen dira, inbertsioaren etekin inputatuari eta zerga-oinarriari dagokienez. Pentsio-funts pribatuen biziarteko balioan, ez dago mugarik. Pilatutako funtsei ez zaie zergarik ezartzen.
Prestazioen tratamendu fiskala
Pentsioen diru-sarrerak laneko etekin gisa kargatzen zaizkio errentaren gaineko zergaren tasa marjinalen. Kapital-asegurutzat jotzen diren eta prima kengarririk ez duten errenta pribatuen ordainketak errentaren gaineko zergatik salbuetsita daude.
Kotizazio sozialak
- Kotizazio sozialak ez dira pentsioetarako ekarpenetan aplikatzen. Hala ere, zerga berezi bat ezartzen zaio nominari, % 24,26koa, enplegu-pentsioetarako ekarpenen gainean (ekarpenak enpresaburuak ordaintzen ditu). - Kotizazio sozialen gaineko zergak ez ditu pentsioen ondoriozko diru-sarrerak zergapetzen.
Enpresaburuek kapitalizazioko pentsio-plan pribatu bat sortu edo horrelako plan bati ekarpenak egiteko pizgarriak
- Enpresaburuek langilearen soldataren % 35 ken dezakete, baina, gehienez ere, oinarrizko 10 zenbateko (465.000 koroa suitzar 2019an), pentsio-plan desberdinetarako. Zerga-arintzerako eskubidea izateko, prestazioak ezin daitezke 55 urte bete baino lehen atera, eta ordainketek gutxienez 5 urtez iraun behar dute errenta gisa. - Halaber, enpresaburuak aurreikuspen osagarri bat erabil dezake, pentsio-akordio bat aldatzen bada edo, enplegu batetik aldeztu aurretik erretiratu gero, beste akordio bat egiten bada. Gainera, pentsio-konpromisoak behar beste aseguratuta ez badaude, xedapen osagarria erabil daiteke. Xedapen osagarriak ezartzen duenez, pentsio-konpromiso bat aseguratzeak kostu osoa kengarria da, baldin eta konpromiso hori legean xedatzen diren baldintzen aurka ez badago.